

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko otsailaren 13tik 19rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/02/15

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Lan hitzarmen kolektiboak.** - Ebazpena, 2021eko otsailaren 4koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren oinetakoaren industriaren hitzarmen kolektiboko 2021eko ordainsarien taulak. **2021- 2292 xedapena - 3 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2021/02/18

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.**
 - Ebazpena, 2021eko otsailaren 4koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den gazteen erreforma eta adin txikikoen babesaren estatuko IV. hitzarmen kolektiboa. **2021-2543 xedapena- 70 or.**
 - Ebazpena, 2021eko otsailaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den kontserba begetalak fabrikatzeko estatuko hitzarmen kolektiboaren akordio partziala. **2021-2544 xedapena - 3 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2021/02/19

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.**
 - Ebazpena, 2021eko otsailaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, Hegaztien eta bestelako animalien haztegiatarako hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **2021-2635 xedapena - 39 or.**
 - Ebazpena, 2021eko otsailaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, Ontzeen, uhalen, larru industrialen eta larrugintzarako larrua ontzeko industrien estatuko hitzarmen kolektiboaren 2021eko ordainsarien taulak erregistratzen eta argitaratzen dituen **2021-2636 xedapena - 3 or.**

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2021/02/18

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** - Gipuzkoako Elikadura Merkataritza eta Industriako hitzarmen kolektiboaren 2021erako soldataren berrikuspena. 710 xedapena - 6 or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/02/13

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Ezohiko neurriak** - PCM/118/2021 Agindua, otsailaren 11koa, 2021eko otsailaren 9ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena. Horren bidez, luzatu egiten dira 2020ko abenduaren 22ko eta 2021eko otsailaren 2ko Ministroen Kontseiluen Erabakiak, zeinen bidez COVID-19aren hedatzea eta kutsatzea eragozteko ezohiko neurriak ezartzen diren, hurrenez hurren, Erresuma Batuen eta Espainiako aireportu eta portuetako hegaldi zuzenak eta bidaiarien ontziak mugatuta; eta Brasilgo Errepublika Federatiboaren eta Hego Afrikako Errepublikaren eta Espainiako aireportuen arteko hegaldiak mugatuta. 2021-2131 xedapena - 3 or.
- **AUZITEGI GORENA. - Autoak.** - 2020ko urriaren 5eko autoa, Auzitegi Goreneko Hirugarren Salarena, ebazten duena kautelaz bertan behera uzteko ibilgailuen azterketa teknikorako neurri bereziak ezartzen dituen maiatzaren 15eko SND/413/2020 Aginduaren bigarren idatz-zatia. 2021-2134 xedapena - 1 or.

2021/02/15

- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. - Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - CUD/123/2021 Agindua, otsailaren 9koa, proiektu digital eta teknologikoen bidez industria kulturalak eta sorkuntzakoak modernizatu eta berritzeko laguntzak emateko prozeduran bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak eta jakinarazpenak nahitaez egin beharra ezartzen duena. 2021-2168 xedapena - 3 or.

2021/02/16

- **XEDAPEN OROKORRAK. - ESTATUKO BURUZAGITZA. - Autonomia Estatutuak.**
 - 1/2021 Lege Organikoa, otsailaren 15ekoa, Murtziako Eskualdeko Autonomia Estatutuaren ekainaren 9ko 4/1982 Lege Organikoa aldatzekoa. 2021-2313 xedapena - 3 or.

2021/02/17

- **XEDAPEN OROKORRAK. – NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.- Nekazaritzako ustiategiak.** - 93/2021 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretua. Horren bidez, oinarritzko neurriak ezartzen dira zerri-azienda estentsiboko ustiategien antolaketaarako, eta untxi ustiategien antolaketaarako arauak ezartzen dituen ekainaren 25eko 1547/2004 Errege Dekretua aldatzen da. **2021-2394 xedapena - 3 or.**

2021/02/18

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** – Akats zuzenketa, honako Errege Lege-dekretu honena: 3/2021 Errege Lege-dekretua, otsailaren 2koa, genero arrakala murrizteko eta beste gai batzuetarako neurriak hartzen dituen Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren alorrean. **2021-2453 xedapena - 1 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA.** –Toki korporazioak. Zerga informazioa. – Ebazpena, 2021eko otsailaren 10ekoa, Autonomia eta Toki Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez garatzen den 2019ko ahalegin fiskalari dagokionez toki korporazioek eman beharreko informazioa, eta Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzen egiaztapena. **2021-2457 xedapena- 4 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA.** – Osasun neurriak.- SND/133/2021 Agindua, otsailaren 17koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoeran, Brasilgo Errepublika Federatibotik eta Hego Afrikako Errepublikatik datozen pertsonen egin beharreko berrogeialdiaren baldintzei buruzkoa. **2021-2458 xedapena - 6 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/02/13

- **XEDAPEN OROKORRAK. – Lehendakaritza.** - 7/2021 DEKRETUA, otsailaren 12koa, lehendakariarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. **827 xedapena - 1 or.**

2021/02/15

- **XEDAPEN OROKORRAK. - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 12/2020 FORU DEKRETU-ARAUUA, abenduaren 22koa, 2021. urterako berandutze interesa, AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeko kanona eta zerga arloko eguneratze koefiziente batzuk zehazten dituen. **828 xedapena - 4 or.**
- **XEDAPEN OROKORRAK. - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 1/2021 FORU DEKRETU-ARAUUA, urtarrilaren 19koa, Kontseiluaren 2016/1164/EB Zuzentaraua hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoetako dagokienez aldatzen duen maiatzaren 29ko 2017/952/EB Zuzentzarauaren transposizioari buruzkoa. **829 xedapena - 13 or.**

2021/02/17

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 1/2021 LEGEA, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. **883 xedapena - 136 or.**

2021/02/19

- **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2021eko urtarrilaren 25ekoa, Jaurkitzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, joko-jardueretan banku-txartelen edo antzeko gailuen erabilera arautzen duena. **938 xedapena - 3 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikokoaren Aldizkari ofiziala)

2021/02/19

- **BATZAR NAGUSIAK. - FORU ARAUAK.** - 3/2021 Foru Araua, otsailaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko. **517 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/02/17

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK**
 - 2021eko otsailaren 3ko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, Foru Dekretu Arauemaile hau berresten dauena: 1/2021 Foru Dekretu Arauemaile, urtarrilaren 12koa, COVID-19aren ondorioz Balio Erantsiaren gaineko Zergan neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa. **112 xedapena - 1 or.**

- 2021eko otsailaren 3ko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, Foru Dekretu Arauemaile hau berresten dauena: urtarilaren 19ko 2/2021 Foru Dekretu Arauemailea, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoei dagokienez 2016/1164 (EB) Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentaruaren transposizioa egiten duena. **113 xedapena - 1 or.**
- 1/2021 FORU ARAUA, otsailaren 3koa, zeinaren bidez tasa bat ezartzen den Bizkaiko Foru Aldundian eta haren erakunde autonomoetan langile sartzeko hautaprobak egiteko interesa dutenei behar diren zerbitzuak emateko. **114 xedapena - 4 or.**

2021/02/18

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 309/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 10ekoa. Honen bidez, aldatu egiten da Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 582/2017 Foru Agindua, martxoaren 24koa, informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredu onesten duena. **120 xedapena - 4 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/02/16

- **ERREGELAMENDUAK.**- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/250 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 16koa, zeinaren bidez aldatzen den Kontseiluaren 95/93 (EEE) Erregelamendua, Batasuneko aireportuetan ordutegiak erabiltzeko neurriak aldi baterako malgutzeari dagokionez, COVID-19aren krisiaren eraginez. (¹). **177 xedapena - 5 or.**

2021/02/19

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/250 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 16koa, zeinaren bidez aldatzen den Kontseiluaren 95/93 (EEE) Erregelamendua, Batasuneko aireportuetan ordutegiak erabiltzeko neurriak aldi baterako malgutzeari dagokionez, COVID-19aren krisiaren eraginez. **250 xedapena - 8 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAIO, 26 - 48009 BILBAO